

OINARRIZKO MAILA 2

GAITASUN BAKOITZA NEURTZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

IRAKURMENA

Ikasleak maila honi dagozkion trebetasunak bereganatu dituela ulertuko da, baldin eta gai bada:

- Hitz arruntez eta nazioarteko hitz ezagunez osatutako testu labur eta sinpleak ulertzeko.
- Eguneroko bizitzan erabiltzen diren aparailuen erabilerari buruzko jarraibideak jasotzen dituzten testu laburrak eta sinpleak ulertzeko.
- Material sinpleak erabilia (esaterako, gutunak, esku orriak, zerrendak eta ordutegiak), informazio jakinak lortzeko.
- Gutun pertsonal laburrak eta sinpleak ulertzeko, eta gai praktikoei buruzko korrespondentzia formala (esaterako, eskaera baten konfirmazioa edo beka baten esleipena) ulertzeko.
- Egunkarietako testu labur eta sinpleetako (esaterako, gertakariak deskribatzen dituzten albisteen laburpenak) funtsezko informazioa identifikatzeko.
- Leku publikoetan (kaleetan, tren geltokietan, metroetan, aireportuetan eta abarretan) egoten diren seinaleak eta oharrak ulertzeko.

ENTZUMENA

Ikasleak maila honi dagozkion trebetasunak bereganatu dituela ulertuko da, baldin eta gai bada:

- Bere aurrean egindako elkarrizketen zentzu orokorra eta berariazko informazioa ulertzeko, eta gaia aldatu dela identifikatzeko, betiere, elkarrizketak poliki eta argi adieraziak badira.
- Ikasleak parte hartzen duen elkarrizketetan, gai ezagunei buruz hizkuntza estandarrean eta argi adierazitako hizketaldiak ulertzeko gai bada; betiere, informazioa eskatzeko aukera badu.
- Eguneroko eragiketei eta gestioei buruzko jarraibide errazak ulertzeko; esaterako, leku batetik bestera oinez edo garraiobide publikoan joateko behar direnak.
- Telebistako albisteen (ekitaldi, istripu, eguraldi iragarpen eta abarrei buruzkoak) ideia nagusia hautemateko eta ulertzeko, albisteak ikusizko materialez osatzen badira.
- Mezu eta ohar sinpleen ideia nagusia hautemateko eta ulertzeko.
- Eguneroko gaiak hizpide izanda, grabatutako pasarte laburren oinarrizko informazioa ulertzeko; betiere, poliki eta argi hitz egiten bada.

IDAZMENA

Ikasleak maila honi dagozkion trebetasunak bereganatu dituela ulertuko da, baldin eta gai bada:

- Gutun pertsonal oso sinpleak (norberari buruz edo norberaren inguruz hitz egiten dutenak, eskerrak ematekoak edo barkamena eskatzekoak) idazteko.
- Labur eta zehatz deskribatzeko gertakariak eta jarduerak.
- Planak eta proiektuak deskribatzeko eta nahiak adierazteko.
- Gutun formal sinple eta laburrak idazteko: zerbitzu bat edo informazioa eskatu.

MINTZAMENA

Ikasleak maila honi dagozkion trebetasunak bereganatu dituela ulertuko da, baldin eta gai bada:

- Istorioen bat kontatzeko edo zerbait deskribatzeko, elementu zerrenda sinple bati jarraituz.
- Komunikazio edo aurkezpen labur bat egiteko, aurrez landutako gaiei buruz.
- Zaletasunak eta lehentasunak adierazteko.
- Eguneroko eragiketa eta elarrizketa laburretan eroso parte hartzeko.